

KANALAK

Gure aplikazioa gure bezeroengan helarazteko gehienbat publizitatea erabiliko dugu adibidez; sare sozialak erabiliko ditugu, bertan, sortu berri dugun aplikazioa erakutsiko eta azalduko dugu aplikazioaren barruan egin daitezken gauza desberdinak azalduz, entzuleek ondo ulertzeko eta aplikazioataz gehiago jakiteko. Bestalde, kanalen bitartez, gure proiektua merkatu segmentaziora iristera lortzen dugu, gure balio-proposamena helarazteko. Gure kasuan, gehienbat komunikazio-kanalen eta salmenta-kanalen bitartez lortuko dugu. Aipatu bezala, sare sozieltan gure iragarkiak jartzerako garaian, ahoz-ahozko komunikazioa ere asko balioko digu; hain zuzen ere, aplikazio berri baten albisteak ikusiz gero, batek beste bateri hori komunikatzeko ahalbidetasuna edukiko du. Horrekin guztiarekin, jende gehiagok jakiteko aukera izango dugu eta proiektua aurrera eramateko gaitasuna edukiko dugu.